

HEZIKETA BEREZIA ETA IRAKASLE LABORALAK

10 URTE LAN-HITZARMEN BERRI BATEN ATZETIK

Heziketa Berezia eta irakasle laboralen sektorea 1.600 langilek osatzen dugu kolektibo ezberdinetan bananduta. Alde batetik, irakasle laboralak eta, bestetik, hezkuntza premiak bereziak dituzten ikasleei arreta ematen jarduten direnak: fisioterapeutak, hezkuntza laguntzako espezialistak, keinu hizkuntzako interpreteak, okupazio-terapeutak, transkriptoreak...

Gaur Lakuan elkarretaratze hau egiten dugu Hezkuntza Sailak gure sektoreko aldarrikapenak behingoz seriooki har ditzan. Gure lan baldintzak defendatzeko kalera ateratzen garen langileok gero eta gehiago garela. Gobernuek, administrazioek, enpresariak... uzten diguten bide bakarra hori baita. Eta gu ez gara salbuespena.

Gure sektoreak duen berezitasuna, ordea, daramatzagun hamar urteko borrokan datza. Bai, horrela da. Lan-legepeko irakasle eta hezitzaileen sektoreko azken hitzarmena 2003koa da eta hortik hona Administrazioak, gobernu ezberdinen administrazioak, gutaz gogoratu dira, soilik, murrizketak, bata bestearen atzetik, aplikatzeko orduan: soldaten jaitziera (%5, 2010ean), soldaten izozketak (2010ean eta 2011n), baja egoeran soldata murriztu, erretiro aurreratuen lan-sariak kendu (2012an), 2012ko 14. paga kendu, langileoi negoziatzeko indarra kentzeko lan erreforma aldatu...

Horretarako bai, hartzen gaituzte kontuan, gure eguneroko lanean ditugun arazoak konpontzeko, aldiz, ez dute ezta saiakerarik egiten. Beraz, aurrean daukagun panorama hau da: lanean ditugun arazoak, administrazioak aurkezten duen borondate ezagatik, ez dira konpontzen eta lan-baldintzak, ordea, okertzen doaz. Honen ondorioz, gure sektoreko langileen lan zama gero eta handiagoa da, ordutegia gero eta estuagoa, funtzioak modu egokian betetzea askoz zailagoa... eta, **egoera horren ondorioz, kaltetuenak**, hau argi izan behar dugu guztiok, **ikasleak dira**. Sektore honetan aplikatutako murrizketek ikasleen arretarako baliabideen gutxitzea ekarri baitute (2006tik hona aurrekontuen izenean, lanpostu berririk ez sortzeko politikak aplikatu dituzte eta).

Hori dela eta, LAB, ELA eta STEE-EILAS sindikatuok indarrak batu ditugu Administrazioari mezu hau helarazteko: beraiek ez badiete gure ikasleei kalitatezko hezkuntza bat eman nahi, guk bai. Eta hori lortzeko bidean behar ditugun baldintzak eskatzen jarraituko dugu.

Horregatik, administrazioari 2011n sinatu genuen **aurreakordioaren haritik negoziazioak irekitzea eta gure sektorean murrizketak ez aplikatzea exijitzen diogu eta eskatua** dugun lehenengo negoziazio mahaiari, Hezkuntza Sailak bi baldintza bete beharko ditu negoziazioan aurrera jarraitu ahal izateko:

- ULTRAKTIBITATEA mantentzea. Uztailaren 7an lan-hitzarmen berria sinatu ez badugu ere indarrean dagoena mantentzea beste bat sinatu bitartean.
- EGONKORTASUNA. Gaur egun ditugun langileak eta lanaldia mantentzea.

Bi baldintza hauek bete ezker, Lan-hitzarmen berri bat lotze bidean gure OINARRIZKO ESKAKIZUNAK zera dira:

- 2011an adostu genuen AURREAKORDIOAREN garapena.
- Gure sektorean ere MURRIZKETARIK ez aplikatzea
- Galdutako eros ahalmenaren berreskuraketa

Aldarrikapen hauek, negoziazio Mahaiara emango ditugu, eta administrazioaren jarreraren arabera izango da gurea ere eta jakin dezatela ez dugula etsiko gure aldarrikapenetan

Euskal Herrian, 2013ko martxoaren 11n

